

## Ordiziako azoka

Euskal Herrian azoka esanguratsu asko ditugu eta denetan inguruko nekazarien produktu gozoak erosteko aukera izateaz gain, gure paisaiaren zaintzaile diren nekazariekin zuzen-zuzenean hitz batzuk egiteko guneak ere badira. Gipuzkoan dugun azoka entzutetsuenetakoa Ordiziakoa da, batik bat irailean ospatzen den Idiazabalgo ardi gazta lehiaketak egin du ezagun, baina, azoka astero egiten da. Askotan, hemengo salneurriak beste azoketarako erreferentzia ere izaten dira.

## Joateko arrazoi asko

Baratzezaintzarako zaletasuna duen edonorentzat azoka hauek ezagutzea interesgarria suerta daiteke:

- Gure zentzumenak gozarazteko.
- Garaian garaiko produktuak ezagutzeko.
- Produktuen salneurriaren atzetik dagoen nekazariaren esfortzua baloratzeko.
- Gure lurretik sorturiko hainbat produktu ikusi eta hauen ugaritasunaz jabetzeko.
- Produktu hauen mokadutxoak dastatzeko.
- Etxera kalitatezko produktu bat eraman eta gure baratzean hazten ditugunekin alderatzeko.
- Eta nola ez, egun eder bat pasatzeko; izan ere, sortzen den jai-giro eta festa zalapartatsuak horretarako aukera paregabea ematen baitu.

## Azoken egutegia

Ordiziako azoka ez da asteazkenero burutzen den horretara mugatzen; izan ere, urte guztian zehar hainbat azoka berezi antolatzen dira. Hauek dira urtero errepikatzen direnak. [Ezagutu data zehatzagoak](#)

- Artzain Eguna, martxo bukaera edo apirila hasieran.
- Antzinako Azoka, maiatza bukaera edo ekaina hasieran.
- Euskal Jaietako Azoka Berezia, iraila hasieran.
- Arabar Errioxako Ardoen Azoka, urria bukaera aldera.
- Gabonetako Azoka, gabonetan.

## Ordiziako azokaren jatorria

Ordiziako azoka XI-XII. mendeetan San Bartolome ermitaren inguruan ospatzen hasi zenetik, makina bat istorio eta gertaera bizi izan ditu. Ziurrenik garrantzitsuenetakoa 1512an herri guztia suntsitu zuen sutearen ondorioz Gaztelako Juana La Loca erreginak herriari “urtean zehar, asteazkenero, merkatu librea, zergarik gabea, egiteko errege-baimena” eman izana. Hau dugu, hain zuzen ere, gaur egun oraindik, alde zaharraren bihotzean, Plaza Nagusian eta inguruetan, ospatzen den asteazkenero azokaren erreferentzia historiko nagusia.

Horrela arautu zenetik, gora beherak gora behera, mendeetan aurrera egin zuen, XVIII. mendean erabat asentatu arte. Trenaren etorrerak, 1860ko hamarkadan, bultzada handia eman zion azokari eta herriari.

1925. urtean berriz, hainbat behar eta eskakizunei erantzunez, egun ikus dezakegun estalkia eraiki zitzaion Plaza Nagusiari.

Honela, bere historia eta tradizioan oinarrituta Ordiziako azoka erreferente bihurtu da nekazal munduko produktuentzat. Besteak beste, baserriko fruta eta barazkientzat, Idiazabal gaztarentzat edota arkumearentzat.



## La feria de Ordizia

En el País Vasco tenemos muchas ferias emblemáticas donde podemos disfrutar y comprar productos producidos en nuestra tierra. Una de las ferias más reconocidas de Gipuzkoa y que se repite todos los miércoles del año es la feria de Ordizia, debido a su historia y a que los precios que se manejan sirven de referencia para otras ferias. Además, el concurso de quesos de oveja de la denominación Idiazábal, que se celebra año tras año en septiembre, en el marco de la Feria Especial de las Fiestas Vascas ha servido para dar aún más visibilidad a esta feria.

### *Hay muchas razones para visitar la feria de Ordizia*

Si eres aficionado a la horticultura tienes muchos motivos para visitar esta feria, entre otras razones:

- Es un deleite para los cinco sentidos.
- Nos ayuda a conocer e identificar los productos de cada temporada.
- Aprendemos a valorar el esfuerzo y el buen hacer que está detrás de cada precio.
- Nos enseña la enorme diversidad de los productos locales.
- Podemos degustar algún que otro producto.
- Podemos llevar productos de calidad a nuestro hogar y compararlos con los producidos en nuestra huerta.
- Y por supuesto, nos sumerge en un ambiente festivo y movidito.

### *Calendario de la feria de Ordizia*

Además de celebrarse en la plaza central de Ordizia el mercado tradicional cada miércoles, se organizan asimismo numerosas ferias especiales. Estas son las que se repiten cada año y las fechas aproximadas.

#### [Información más detallada](#)

- Día del Pastor, hacia finales de marzo o principios de abril.
- Feria Medieval, hacia finales de mayo o principios de junio.
- Feria Especial de Fiestas Vascas, a principios de septiembre.
- Feria de Vinos de Rioja alavesa, hacia finales de octubre.
- Feria de Navidad, en Navidades.

### *Historia de la feria de Ordizia*

Desde que ya en los siglos XI-XII se comenzaron a celebrar los primeros encuentros mercantiles alrededor de la ermita de San Bartolomé, el mercado de Ordizia ha sido testigo directo del desarrollo mismo de la villa y de numerosas anécdotas y acontecimientos sucedidos en torno a ella. Uno de estos hechos es sin duda, el incendio que destruyó la villa en 1512. A raíz de este trágico suceso, la reina Juana 'la Loca' de Castilla concede a Ordizia "la real facultad para que pudiera celebrar mercado franco semanal todos los miércoles del año". Probablemente fue esto lo que le dio al mercado el impulso definitivo para afianzarse y llegar hasta nuestros días. Con numerosos altibajos en su desarrollo, el mercado se asentó definitivamente en el siglo XVIII y la llegada del tren en la década de 1860 dio un enorme impulso tanto al mercado como al municipio. En 1925 en respuesta a numerosas necesidades y peticiones, se construyó la singular estructura de hormigón que todavía hoy cubre la Plaza Nagusia. De este modo, apoyada en el peso de su historia y de su tradición, el mercado de Ordizia se ha convertido en referente para los productos agrícolas del país: frutas, verduras y hortalizas autóctonas, queso Idiazabal y cordero.

